

ETHAN FROME
EDITH WHARTON

Itzultzaileak: Miren Arratibel/Aintzane Atela. Arg.: Erein. Literatura Unibertsala, 185. Orr.: 176. Salneurria: 18 euro.



'Ethan Frome', betebehar moralek eta konbentzioek zapuztutako maitasun istorioa

N. AZURMENDI

DONOSTIA. 1862an New Yorkeko familia aberats batean jaio eta 1937an Frantzian hil zen Edith Wharton idazle estatubatuarren ingurune naturala goi-burgesiaren giro dotorea zen. Bizitza aske eta aurrerakoia eraman zuen idazle oparoak, Pulitzer saria jaso zuen lehen emakumeak, giro horretan kokatu zituen lan gehienak; ezagunenak aipatzearren, 'The House of Myrth' ('Alaitasunaren etxea') edo 'The Age of Innocence' ('Xalotasunaren adina').

Beste ezaugarri bat partekatzen dute Whartonen lanek: «Gizabakoen eta gizartearen arteko tentsioak» islatzeko joera. Eusko Jaurlaritzak, EIZIEk, eta Igela eta Erein argitaletxeek partekatzen duten Literatura Unibertsala bilduma aberastu duen 'Ethan Frome' ez da salbuespena, landa eremuan girotu bazuen ere. Aintzane Atelarekin batera euskarara ekarri duen Miren Arratibelen hitzetan, 1911n argitaratu zen 'nouvelle' edo nobela laburreko «protagonistak ez dira goi mailako jendea, herritar xumeak baizik».

Giroz aldatzen badu ere, maitasun istorio ezinezko bat ardatz duen nobelan «bere gai nagusietakoa» denari eusten dio, «gizarteak ezartzen dituen arauetatik kanpo bizitzeak dakartzan ondorioei». Ethan Frome nekazari gaztea maite ez duen Zeena emazte gaixoti eta manipulatzailearen eta etxera neskame datorkien Mattie gaztearenganako maitasun sutsuaren artean harrapatuta dago, zer egin jakin gabe: «Zorionaren bila ihes egin, edo betebehar morala bete eta emaztea zaintzen gelditu, eraman ezineko eta zapalkuntzaz betetako giro batean».

Aurkezpena itzultzaileekin, Kultura Saiburuordetzako Joxean Muñozekin eta EIZIEko lehendakari Manu López Gasenirekin partekatu zuen Inazio Mujika Iraola editorearen ustez, «'Ethan Frome' perlatxo bat da Whartonen ibilbidean eta literaturaren historian».

Itzultzaileek istorio hunkigarri bat kontatzen duen testuaren maila nabarmendu zuten, gorai patuz Whartonen idazkera «garbi eta xumea», sinboloz, metaforaz eta konparazioz betea. Eta aitortu zuten «denak aparteko pisua» duen estilo horrexek lan handia eman diela testua euskaratzeko orduan.